

noaia

**Kale izendegia
eguneratu du Udalak**

**Carmen Lloret
euskaldun berriarekin
solasean**

**Gazte mugimendu
berri bat sortu da**



**Asteburu honetan Aginagan,
oilasko biltzaileen txanda**



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



Marije

Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

UNEGIN

KILOMETROAK 2012 ANDOAIN
AITA MANUEL LARRAMENDI IKASTOLA

kilometroak jaiak behar zaitu

**2012ko urriaren 7an lagundu nahi baduzu
hiru aukera dituzu izena emateko:**



kilometroak.net web orria
kmk12.gizabaliabideak@ikastola.net
tel.: 688 608 825



Albiste irudituan

Espetxean sorturiko artelanak

Jokin Errasti preso aginagarrak espetxean eginiko eskulanak ezagutzeko aukera egon da iragan asteburuan. Erakusketa Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak antolatu du, Errastik kartzelan hamar urte bete dituen honetan.

Joan den ostiraleko euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde frontoian burutu zen elkarretaratzean ere, gogoan izan zuten urteurren hau. Mobilizazio berezia izan zen. Beste preso aginagar batek, kasu honetan, Xabier Aranburuk ("Xomorro") idatzitako olerkia irakurri, erakusketak jaso duena, edota herriko musikari talde batek bi abesti ere jo zituen.



Picassoren Gernikan oinarritutako hainbat artelan eginak ditu Jokin Errastik.

Laburrean

Kinto bazkariak

1946an jaiotakoak Antxetan elkartuko dira urriaren 14an. Izena emateko Laurok dendara hurbildu edo hona deitu: 943 363 448.

1962an jaiotakoak urriaren 27an elkartuko dira Olarrondon. 80 euro sartu behar dira Kutxako zenbaki honetan: 2101 0040 60 0013053772 (izen abizenak adierazi ere). Urriaren 13a baino lehen eman behar da izena.

1955eko kinto afaria urriaren 20an izango da, Antxetan. 943 362 226 (Ana) edo 943 366 879 (Jose Miguel) deitu interesa duzenok.

Akatsak zuzenduz

Irailaren 28ko astekarian BEZ eta krisialdi ekonomikoari buruzko inkesta bat burutu genuen, herriko hiru saltokietan. Tartean, Lizardi liburu dendako Beatriz Azaldegi elkarriketatu genuen. Bere erantzunetako batean ordea, aipamen bat jaso gabe geratu zen, BEZ igoerak zer modutan eragin zion galdetzen genionean hain zuzen. Eskola materialeko produktu batzuen BEZ zerga, %4tik %21era igo dela aipatu zigun berak. Beste produktu batzuen BEZ zerga, %18tik %21era igo zela. Barka eragozpenak.

Igandean, Kilometroak

"On Egin" lemepan ospatuko da igande honetan, Gipuzkoako ikastolen aldeko festa. Oraingoan, Andoainean, Aita Larramendi ikastolaren alde. Antolakuntzarako laguntza behar dute.

Animatzen diren guztiek helbide honetara idatzi dezakete, kmk12.gizabaliabideak@ikastola.net, 688 608 825 telefono zenbakira deitu, edo www.kilometroak.net bisitatu.

Web orrialde berean, ibilbidea, egitaraua eta igandeko jaialdiaren inguruko zehaztasun guztien berri ematen ari dira.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Urtal preboak



Urtal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa:

Aloña Esnaola,

Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.


Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola. **Tirada:** 2.800 ale. **Lege-Gordailua:** SS-668-96 **ISSN:** 1136-6818. **Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Ugaitz Agirre

Fiskala eta auziperatua

Mundua erotu egin da! Erotu bakarrik balitz... Eroetxe bat txiki gertatzen da berarentzat. Termino berri bat asmatu behar dugu bere gaitza senda dezakeen espezialista izendatzeko. Bere garuna berezko gaitasuna baino bi edo hiru edo hamaika aldiz azkarrago mugitzen da. Bere bizitza osoan ikasi duenak ez du ezer balio oraingo honetan. Dena hankaz gora dago. Kamasutrako posturen orgia bat dirudi. Eta errudun bakarra ZU zara! Bai, ZU! Ez begiratu beste alde- ra, oso ondo dakizu eta kulpa

guztia ZUK duzula! Mea culpa- rik ez ez esan. Horrek ez dizu ezertarako balio izango Epaile Gorenaren aurrean.

Zergatik existitzen zara? Nork ekarri zintuen mundu honetara? Esklaboren bat edo izango zen seguruenik zure ama. Herri xehea definitzen duten horren partaideetako baten ondorengo. Zer uste duzu, Moises zarela? Judutarrak Faraoiaren oin- petik atera eta Israelgo Zinez- ko Lurraldera eramango ditu- zula pentsatzen duzu? Edo aka- so Frodo Bolson zarenaren ustea duzu? Sauron akabatzen asmoz

Patuaren Mendian eraztuna suntsituko duen aukeratua? Ez esan gero Napoleon zarenik. Zure bipolaritatea begiratu beharko zenuke.

SOZIALISMOA? Zu izan zara gaur egungo langileak patroia- ren aurka altxarazi dituen. NAZIONALISMOA? Zu zara esta- tu nagusien aurka altxarazi diren herrien atzean zaudena.

SUFRAGISMOA? Zu eta ez beste inor izan da herritar apa- lenak nazioaren eraikuntzan partehartzera eraman dituen.

FEMINISMOA? Zu, zu eta zu zara emakumei gizonen mai-

la berdinean daudela esan die- na.

ATEISMOA? ZU! Zuk esan zenien gizakiei Jainkoa ez zela existitzen eta gizakien imajina- zioak sortu zuela.

Hau guztia esanda, Epaile Jauna, nik nire hautua hartu dut: Mundua izaki honek erotu du. Jendeak ASKATASUNA deitzen duen izaki honek. Bera gabe askoz hobeto biziko ginatke.

Auziperatuak zerbait gehi- tzeko ba al du?

Nik hori dena nire intentzio onenarekin egin nuen.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | **Ugaitz Agirre** | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre

Erretzeari uzteko ikastaroa antolatu dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek

Erretzeari utzi nahi badiozu eta laguntza behar baduzu, akaso interesgarri egingo zaizu Udalak antolatu duen ikastaroa. Bi hilabete iraungo du: urriaren 30etik abenduaren 18ra. Eta astean behin elkartuko dira, astearte arratsaldetan, Artzabalen. Tabakoarekin ikusi beharra duten bi dependentzia landuko dira: dependentzia fisikoa eta psikologikoa.

“Dependentzia fisikoaz hitz egiten dugunean nikotinak sortzen duenari buruz ari gara”, dio Udalak bere web orrian ipini duen informazioan. “Erretzeari uztean, nikotina faltak gorputzean abstinentzia sindromea sor dezake. Honi nola aurre egin lantzen



Urriaren 30ean hasi eta abenduaren 18an amaituko da.

dugu lehenengo saioetan”.

Dependentzia psikologiko- az ari garenean berriz, erre- tzaileak ekintza honen ingur- ruan sortu duen prozesu guz- tia kontuan hartzea suposa- tzen du: ohiturak, erlazioak, automatismoak...egoera emo- zionalei oso lotua egoten da kontsumo hau. Erretzeari uz- teak jarrera aldaketa bat su-

posatzen du pertsonarengan. Eta horrek zailtasunak sor- ditzaie. “Jakin badakizu ez da- goela errezeta magikorik, se- kretua egunerokotasunean agertzen diren zailtasunei aurre egitean datza. Hori da tal- deetan egiten duguna” dio udalaren web orriak. Horretar- ako baliabide pertsonalak eta berriz erretzen hastea

saihesteko teknikak landuko dira.

- **Eguna:** Asteartean.
- **Ordutegia:** 18:30-19:45.
- **Lekua:** Artzabalen.
- **Epea:** Ikastaroa urriaren 30ean hasi eta abenduaren 18an amaituko da.
- **Bideratzailea:** Mainer Sierra, Minbiziaren Aurkako Elkar- teko psikologoa.
- **Parte hartzaile kopurua:** Gutxienez 8 pertsonak har dezakete parte eta gehienez 14 pertsonak.
- **Izena emateko azken egu- na:** urriak 26.
- **Izen ematea:** Udaleko **Gizar- te Zerbitzuetako bulegoan** edo telefono zenbaki honetara deituz: 943 377 110.
- **Ikastaroa doakoa** izango da.
- **Antolatzailea:** Udaleko Gizarte Zerbitzuak.

Olarriondo kalea

Agerrazpiko etxebizitza berrien ondotik igaroko den kale berriak Olarriondo izena hartu du

Agerrazpiko babes ofizialeko etxebizitzaren eraikitze lanek, kale berri bat sortzea ekarri dute; Olarriondo izenekoa. Munalurra kalea Aranerreka inguruarekin lotuko du, "Aranerreka parean sortuko den kale berriraino luzatuko da", udalbatzak hala erabakita aho batez, joan den asteko osoko bilkuran.

Kale berri honen izendapena, toponimoak aztertu ostean proposatu da eta kale izendegia eguneratu beharra, hainbat helbide aldatu beharra eragin du. Modu honetan; azken lanetan murgilduak dauden babes ofizialeko bi etxebizitzek, helbide gisa, 2 eta 4 zenbakiak izango dituz-



Munalurra ingurua. Itxura berria hartzen ari da.

te hurrenez hurren. Kale berean 7 eta 9 zenbakiak izango dituzten udal baratzak kokatu dira.

Bestetik, lehendik bertan zeuden etxebizitzak, "sakabanatuak" izatetik, helbide berriok

edukitzera igaroko dira:

■ **Olarriondoberri:** "Olarriondo kalea, 1" (lehen, Sakabanatuak 5).

■ **Luarri:** "Olarriondo kalea, 3" (lehen, Sakabanatuak 7).

■ **Olarriondozarra:** "Olarrion-

IZEN BERRIAK

"Kale izendegia eguneratu beharrak, beste hainbat helbideren aldaketa eragin du"

do kalea, 5" (lehen, Sakabanatuak 6).

■ **Agerreazpi:** "Olarriondo kalea, 11" (lehen, Sakabanatuak 8).

Udal ekipamenduko eraikin bat ere kokatuko da ingurutant, babes ofizialeko bi etxebizitza eraikin berrien ondoan. Guneak helbide hau izango du: Munalurra kalea, 26.

Eta, aipatu moduan, udal baratzek, honakoa: "Olarriondo kalea, 7-9".

72 herritar aukeratuak, urriaren 21eko hauteskundeetarako

Ostiral gauerdian honetan abiatuko da Eusko Legebiltzarreko hauteskunde kanpaina. Herritarrei bozka eskatzeko bi aste dituzte orain, hautagaiek. Kanpaina amaitu eta hausnarketa egunaren ostean, hilaren 21ean ospatuko dira hauteskundeak. Usurbilen bozka emateko zortzi mahai jarriko dituzte, joan den asteko osoko ohiko bilkuran Mertxe Aizpurua alkateak berri eman zuenez.

Aipatu saioan egin zen hain zuzen, urriko hirugarren igandeko hitzordurako mahaikideen zozketa. Mahai bakoitza, mahai buruak eta bi bokalek osatuko dute, 24 herritarrek beraz. Mahai kide bakoitzera-ko titularrarekin batera, beste bi ordezkoko ere aukeratu behar izaten dira. Beste 48 Usurbi-



Udal hautetsiak, iraileko udalbatza plenoan.

len. Titular eta ordezkoren artean, 72 herritar aukeratu dituzte hauteskunde eguneko mahaia osatzeko.

POSTA BIDEZKO BOZKA

Hauteskunde egunean bozkatzaera joan ezin duenak, posta bidezko botoa eska dezake posta bulegoetan, urriaren 11 baino lehen.

Bestetik, Usurbilgo Ezker Abertzaleak informatzeko bi modu eskaintzen ari da; batetik, usurbileginez.com web orrian sartuta. Edo bestela, azken bi asteotan bezala, ostegun honetan, urriaren 4an Aitzaga Elkartera hurbildu besterik ez dago, 19:00-20:30 artean. Bertan jaso daiteke behar beste zehaztasun.

Gaixotasun larria duten presoengain inguruko mozioa

Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru euskal preso politikoen baldintzapeko askatasun eskaera batetik, eta bestetik, legea betetzeko benetako urratsak emateko deia Espainiako Gobernuari. Bi puntuok jasotzen ditu, Herrirak aurkeztu eta irailaren 25ean burutu zen osoko ohiko bilkuran, udalbatzak onartu zuen "preso gaixoen eskubideen aldeko" mozioa.

Testuak gogoratzen duenez, Josu Uribetxeberria baldintzapean aske utziarren, beste 13 euskal preso politikok gaixotasun larri eta sendaezinak dituzte, "kalerratu behar direnak". Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, "urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernari".

“Euskara ikastea plazer bat

Alakanten jaioa, duela hamar urtetik Usurbilen bizi da Carmen Lloret

Alakanten jaioa, duela hamar urtetik Usurbilen bizi da. Ama hizkuntza katalana du. Bitxia da, baina batez ere eredugarria, hona etorri zenetik, hizkuntza aldetik burutu duen prozesua. Datoren elkarrizketa hau irakurri besterik ez dago. Usurbilera ailegatu berritan, euskara ez zekienez, katalanetik erdarara hitz egitera igaro zen. Mutil lagun eta koadrila euskalduna izanda ordea, euskaltegian matrikulatu zen. Ordutik euskara ikasten Etumetan, eta handik kanpo, herritarrekin ikasitakoa praktikatzeko joan ahala, bertako hizkera ere barneratua du neurri handi batean.



Etorri eta berehala, euskaltegian hasi zen euskara ikasten.

Hamarkada honetan egindako ahaleginarekin pozik da Carmen Lloret herritarra. Euskaltegiko ikasturte berria abiatu den aste honetan, joratu duen bidean honaino nola ailegatu den argi du berak; bere esanetan, euskaraz ikasi baino euskaraz bizitzean dago gakoa.

Nolakoa izan zen etorrera, zure lehen inpresioa hona etorritara?

Ona. Bizitzera etorri nintzen, mutil bat ezagutu nuelako. Bere koadrila euskalduna zen.

“Integratzeko eta unibertsitatean hasteko ere, euskara ikasi behar nuela jabetu nintzen”

Jendeak beti euskaraz egiten zuela konturatu nintzen. Integratzeko eta unibertsitatean hasteko ere, euskara ikasi beharra nuela jabetu nintzen.

Zure ingurukoek euskaraz hitz egiten zutenean zer gertatzen zen?

Nahiko irekia naiz eta elkarriketetan berehala sartzen nintzen. Zuk ere zure partetik eman behar duzu, bestela ezinezkoa da. Nahiz eta bi hitz jakin, horiek esaten nituen. Hasten zara hitz egiten, konturatzen dira zuk ez dakizula eta esfortzu handi bat egiten ari zarela, eta berehala laguntzen dizute. Eta hori eskertzen da noski. Hori aisialdian, euskara ikastea zailagoa izan da. Zerotik hasita, erabat desberdina da.

Zeintzuk izan ziren euskaraz ikasi zenituen lehen hitzak?

“Hik zer nahi dek?” , “zer moduz?”...

Etorri eta gutxira matrikulatu zinen euskaltegian. Zer moduzko hasiera izan zen?

Oso ondo pasa nuen. Jende piloia ezagutu dut, giroa oso

“Mintzalagun taldeak hemengo hizkera ikasten lagundu nau”

Mintzalagunek zertan lagundu dizu?

Carmen Lloret. Hor euskara ikasteak duen garrantzia desagertzen da. Hasieran hitz egiteko gaiak prestatzen nituen. Baina taldearekin geratu eta koadrilakoekin bezala hitz egiten duzu. Azken finean beste koadrila bat da. Pilo bat ikasten da. Hasieran euskara batuan hitz egiten nuen, baina

usurbildarrei asko kostatzen zaie hala hitz egitea. Eta orain niri ere kostatzen zait batuan hitz egitea.

Euskara batuarekin batera, herri hizkera ere ikasi baituzu azkeneko?

Bai eta aberasgarria da. Mintzalagun taldeak hemengo hizkera ikasten lagundu nau. Hiztegia ikasi dut; esaera zaharrak... nola esa-

ten diren. Hori guztia kalean ikasten da. Neure lagunek adibidez, hika hitz egiten dute. Niretzat lehen, dena euskara batua zen. Orain, erregistro desberdinak ikasi ditut. Oso aberasgarria da. Mintzalagunekin oso ondo. Eta barne egon nintzen, bikain. Bueltatuko nintzateke. Esperientzia gomendagarria dudarik gabe, oso polita.

izan da niretzat”



Argazkian da Carmen, Mintzalaguneko kide gehiagorekin batera.

“Orain euskaraz erdaraz baino gehiago irakurtzen dut, musika entzuten dut...”

d i - bertigarrria da. Gaueko 20:00etako taldean hasi nintzen. Nahiko gogorra da, ze jada nekatuta eta etxera joateko gogoz zaudede. Baina giroa oso dibertigarria, klaseak arinak. Oraindik euskaltegiko jendearekin geratzen naiz. Mintzalagun taldean ere parte hartzen dut. Euskara ikastea plazer bat izan da niretzat.

Ikasitakoa nola hasi zinen praktikatzan?

Niretzat zailena koadrilarekin izan zen. Beraiekin erdaraz hitz egiteko ohitura nuen, eta hori aldatzea oso zaila izan zen. Haiek ere arraro ikusten ninduten hasieran, euskaraz hitz egiten. Baina gero herriko jendearekin, unibertsitatekoekin, Mintzalaguneko jendearekin, edo bankuan, ambulatorioan... dena egiten dut euskaraz.

Praktikatzeko prest nengoe-la jabetu nintzen, denda batera joan eta euskaraz eskatzen hasi nintzen. Lotsa hori al-

boratu ostean izan zen, hori da pauso handiena. Orduan jada, prest nengoela esan nezakeen.

Euskara ikasten joan zaren neurrian, topatuko zenuen euskaraz jakin arren, erdaraz hitz egiten zuenik?

Praktikak Donostiako eskola batean egin nituen. Euskaraz hasi nintzen hitz egiten bertan eta irakasle batek esan zidan oso ondo zetorkiola. Erdaraz esaten zidan, galdua zuela euskara eta ondo zetorkiola euskaraz hitz egitea. Ni esfortzu handia egiten, izerditan ia

haiek zer pentsatuko zuten. Eta bat batean, elkarrizketak erdaraz. Beti izan da hori neure kexa, ahal duten batzuek ez dute euskaraz hitz egiten eta esfortzu handia egiten ari garenok, euskaraz hitz egin behar dugu.

Prozesu luze honetan, une zailak biziko zenituen. Nola gaintitu dituzu?

Gustukoa dut euskaraz hitz egitea, irakurtzea pilo bat. Orain euskaraz erdaraz baino gehiago irakurtzen dut, musika entzuten dut... Garrantzitsuagoa da niretzat euskaraz gozatzen dudana. Alde txar guztia baztertzen dut eta alde onarekin geratzen naiz.

Euskara ikasteak zertarako balio izan dizu?

Orain arte, harremanetarako. Maila profesionalean oraindik ez dut erabili. EGA atera arte, ezin dut. Ni irakaslea naiz eta klaseak emateko EGA behar dut. Gaur eskola batean hasi naiz lanean. Irakasleak euskaraz agurtzen hasi eta batek esan dit, euskaraz hitz egiten ote dudana. Nik baietz eta ilusioa egin dit. Piloa kostatzen zait, baina euskaraz hitz egiten eroso sentitzen naiz.

Irakaslea zara lanbidez, nola baloratzen duzu euskaltegian irakasteko duten metodologia?

Interesgarria eta oso ona da niretzat. Ez da ikasten bakarrik, testuak sortu edo ariketak egiten. Ariketa piloa egiten da noski, baina irakurtzen duzu, tailerrak egiten dituzu, piloa hitz egiten da euskaltegian. Metodologia horrek bermatzen dizu ideia global bat hartzea, ez bakarrik azterketak gaintzeko, baizik eta euskaraz bizitzeko, neure kasuan behintzat.

“Euskaraz bizitzea da gakoa”

Zertan aldatu da duela hamar urteko Carmen?

Carmen Lloret. Nongoa naizen galdetzen badidazu, usurbildarra naizela esango dizut. Gero, esango dut Alakantekoa naizela. Usurbildarra sentitzen naiz eta hementxe kultura, gizartea... dena gus-

tuko dut. Oso gustura nago hemen.

Euskaltegian ikasturte berria abiatu dute. Orain hasi den horri zer aholkatuko zenioke?

Pazientzia izateko eta gogotsu aritzeko. Hasi liburuak irakurtzen, abestiak entzuten, kalera atera.

Kalean ezagutzen dut jende piloa eta horrek laguntzen du. Euskaraz bizitzea da gakoa. Euskara ikasteko garrantzitsua da euskaltegira joatea, baina garrantzitsuena hortik kanpo bizitzen duzuna da. Horretarako, hizkuntza benetan sentitu eta maitatu behar duzu.

Lore eskaintza

GUDARI EGUNEAN EGIN ZEN, HERRIAN DIREN OROIGARRIETAN

1975eko irailaren 27an, Francoren agindupean fusilatuak izan ziren ETAko Angel Otaegi azpeitiarra eta Jon Paredes Manot Txiki zarauztarra, zein FRAPeko militante Xose Humberto Baena, Ramon Garcia Sanz eta Jose Luis Sanchez. Orduz geroztik, urtero-urtero, irailaren 27an, Gudari Eguna ospatu ohi da. Usurbilen, gudariaren aldeko oroigarrietan lore eskaintza egin zuen Ezker Abertzaleak.

"Gau beltz baten osteko egunsentian burutu zituen Francoren diktadurak bere azken fusilamenduak. Orduetik, esan liteke herri honek ez duela benetako egunsentirik ezagutu, eta gaua nolabait betikotu zaigula gurean. Hala ere, 37 urte berandua go, eguzki printzek azkenean fereka egingo dioten itxaropena dauka Euskal Herriak", hala dio Ezker Abertzaleak igorri digun oharrak.



Joxe Martin Sagardiaren omenezko plakaren ondoan lore sorta ipini zuten.

Esan bezala, Usurbilgo Ezker Abertzaleak "Usurbil, Nazkas eta Arrantzale, herriko gudariak gogoran izan zituen eta beren oroimenez herrian dauden oroigarrietan lore sorta bana utzi du".

Gazte mugimendu berria eratzen hasteko lehen hitzordua

Urriaren 12an, arratsaldeko 16:00etan Aitzaga Elkarteetan. Hauxe da, joan den ostiralean frontoian jendaurrean aurkeztu zen Euskal Herri mailako gazte mugimendu berriko kideek, finkatu duten lehen asanbladarako hitzordua.

Irailaren 28an burutu zen aurkezpen ekitaldia frontoian. Bertan nabarmendu zutenez, "gazteok, jendarte eredu honek eta Euskal Herriak bizi duen egoeraren aurrean badugu zer esan. Eta zer borrokatu. Gazteok, ez gara inoren zain egongo, gure bidea marraztu behar dugu", adierazi zuten.

Parte hartzera deitzen diete gazteei. "Denok gara beharrezkoak. Hau dela eta, herriko gazte guzkiei, independentzia eta sozialismorantz eramango gaituen gazte mugimendu berriaren prozesu-eratzailaren parte hartzera animatzen zai-



ZukGua Zarautzen aurkeztu zen. Usurbilen asanblada deitu da urriaren 12rako.

tuztegu, denon ideiak eta denon indarrak baitira beharrezkoak herri aske bat lortzeko".

Testuinguru honetan burutu dute, urriaren 12ko lehen asanbladarako deialdia.

UEMA-rako ordezkokoak izendatu dituzte

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitaterako ordezkariak izendatuak zituen Udalak, iazko ekainetik. Irailaren 25ean burutu zen osoko ohiko bilkuran aldiz, ordezkariordezkoak izendatzea onartu zuen udalbatzak, Bilduk eta Aralarren aldeko bozkekin. Abstentziora jozuten PSE-EE, EAJ-PNV eta Hamaikabatek.

-Jose Ramon Furundarena.

Ordezkoa: Eustakio Arrojeria.

-Alaitz Aizpurua.

Ordezkoa: Jone Urdanpilleta.

-Josu Portu.

Ordezkoa: Jose Maria Rivadeneira.

-Mertxe Aizpurua.

Ordezkoa: Enara Arbizu.

EH Bilduren ekitaldiak hauteskunde kanpainan

Asteburu honetan abiatuko da hauteskunde kanpaina. Usurbilen, EH Bilduk egunotarako ekitaldi sorta hau antolatu du:

Urriak 4, osteguna

21:30 Kanpaina hasierako afaria.

00:00 Kartel pegada.

Urriak 6, larunbata

12:00 Bizikleta martxa frontoitik hasita.

17:30 Donostiako Atanon ekitaldia.

Urriak 12, ostirala

18:00-19:00 Sinadura bilketa.

19:00 Argazkia sinadura guztiekien.

22:00 Kafe tartea frontoi inguruan.

Urriak 13, larunbata

17:30 Ekitaldi nazionala Barakaldoko BECen.

(Autobusa Usurbildik. Izen emateko: Txiribogan, Aitzaga tabernan eta elkarteetan).

Urriak 19, ostirala

19:00 Kanpaina amaierako ekitaldia.



Ez dakit zer egin nere pepinoarekin

Ez, lasai, ez gatoz beroaldi batek jota. Baratzeko pepinoari buruz ari naiz, cucumis sativus edo luzokerra. Kontua da urte sasoi honetan baratzean pepinoa izaten dugula. Aurtengo udan badirudi ohikoa baino pepino eta tomate gehiago dagoela, baina Usurbiltzen BasHerri taldean gabiltzanok arazo gutxiago daukagu tomateak jateko garaian itxura denez.

Barazki banaketa egiten ari ginela, taldekide bati entzun nion: zer egiten duzue hainbeste pepinorekin? Eta ondorengo besteak: jo! Niri ez zait gehiegi gustatzen, eta ez dakit zer egin berarekin.

Ba halako kontuekin gabiltzala taldekide honek, berau ere pepino errezeta kontutan oso jantzia ez zenez, bila hasi eta aukera dezente daudela ikusi du.

Oso pepinozaleak ez direnek esaten dute potetsa ematen diela, errepikatu alegia. Errezeta bat prestatzera zoaztean, pure edo krema bat, pepinoa zuritu, erdibitu eta haziak kendu ondoren,



Aukera piloak eskaintzen ditu pepinoak...

gatza pixka bat bota eta utzi 30 minutuz. Ura aterako zaio, eta gero ur hori garbitu eta trapu batekin lehortuz gero, ez duzue arratsalde guztia pepinoa jaten pasako.

Errezeta? entsaladan gordinik, krema edo pureak eginda, udarako zopa hotzak, barrubeteak labean eginda, udan gazpatxo famatua... aukera pila topatu ditut.

Tsatziki salda

Greziar jatorria duen salda, tostada batzuekin, edo berdura zatiak bertan bustiaz jan daiteke. Nik gaur entsalada bat atontzeko erabili dut.

Tsatziki salda: Yogurt natural pare bat. Baratzuri ale pare bat txikituta. Oliba olioia. Gatza. Pipermina. Aneta edo ezkaia.

- Pepinoa, zuritu, haziak kendu eta birrindu. Ura kendu. Pepino birrindua eta beste guztia bol batean nahastu.
- Tomate batzuk zuritu eta txikitu.
- Piper batzuk labean erre, zuritu eta zatitan jarri.
- Lehendik eginan nuen arroza (edo patata egosia). Tsatziki saldarekin dena nahastu... jan.

Ordu-tegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- NOAUA! ·Udaletxea ·Kiroldegia
- Saizar ·Aliprox ·Aginagako Arrate taberna
- Zubietako Alamandegia taberna

Tren eta autobus

noqua

ordutegia 12/13

Getaria eta Kaiku nagusitu ziren Aginagako trainerila txapelketan

Lehia gogorra izango zela bazekiten. Arerioak gogorrak ziren. “Azkena baten bat uztea”, hori zen Agiñako nesken erronka. Eta kostata izan bazen ere, lortu zuten. Beraz, pozik egoteko moduan dira Aginagako neskek. Emakumezko Trainerila Txapelketaren lehen edizioan, Getaria izan zen nagusi eta gizonezkoetan, Kaiku.

AGINAGAKO I. EMAKUMEZKO TRAINERILA TXAPELKETA

1- Getaria	09:09:24
2- Orio	09:24:09
3- San Juan	09:31:68
4- Agiña	09:56:16
5- Hondarribia	10:05:63

AGINAGAKO VI. GIZONEZKO TRAINERILA TXAPELKETA

1- Kaiku	08:12:56
2- Orio	08:18:81
3- Getaria	08:20:43
4- Agiña	08:26:87
5- San Juan	08:31:18
6- Hondarribia	08:32:18



Getaria eta Kaikuko arraunlariak, banderak jaso berri.

Aginagako Pala Txapelketa

Urriak 4 osteguna, 17:30h

Gurpildun aulkiko jokalarien adiskidantzaz-ko pala partida.

Emakumeen arteko finala:

Zalao Leoz - Rosa Uribe

Aitziber Aranguren - Dolo Errasti

Gizonezkoen arteko finala:

Xabier Errasti - Jon Olaizola

Enrike Huizi - Imanol Esnaola

Esku Pilota Txapelketaren finala, ostiralean

X Esku Pilota Txapelketako finala urriaren 5ean jokatuko da, gaueko 22:00etan.

Nor baino nor arituko dira Agiña eta Lasarte-Oria



Beste urte batzuetan, euren artean lehia-tu izan dira. Aurten, ordea, aginagarrak batera arituko dira herri kiroletan. Eta

aurkaria kanpotik etorriko da. Lasarte-Oriako bizilagunak izango dituzte aurrez aurre igande arratsaldean.

Asteburu honetan, San Praixku jaiak bete-bete

Trainerila txapelketa jaien abiapuntua izan zen. Baina festa giroa asteburu honetan leher-tuko da Aginaga partean. Asteburu bete ekitaldi izango da honakoa. Umeen egun handia izango da ostirala, eta larunbatean, oilasko biltzaileak izango dira protagonista nagusiak.

Urriak 4 osteguna

- **11:00** Meza nagusia bertsoariekin ondoren, herriko jubilatuentzat itzelezko hamaiketako Aginaga Sagardotegian.
- **18:00** Frontoian giro ezin hobea: Ezinduen erakustaldia.
- **Ondoren**, Emakumeen Pala Txapelketako II. finala. Gizonezkoen X. Pala Txapelketako finala.

Urriak 5 ostirala

- **10:00** Haurren jolasei hasiera.
- **13:00** Haurrentzako bazkari goxo-goxoa (helduek eurena ordaindu beharko dute).
- **16:30** Puzgarri ezberdinak denontzako.
- Jarraian txokolate banaketa eta buzu handi bizkor bizkorak.
- **22:00** Aginagako X. Txapelketako esku pilota finalak.
- **24:00** Eliza Zaharrea kontzertuak: Artobixar, Escandalo Publico, Hotzikara. Parranda ederraren ostean eguna argitzen ikustera... TIPI TAPA mendira!!



Argazkian, Hotzikara taldeko kideak. Eliza Zaharrea arituko dira ostiral honetan.

Urriak 6 larunbata

- **06:00** Oilasko biltzaileen gosaria.
- **06.30** Oilasko biltzaileen irteera



Oilasko biltzaileak larunbatean ibiliko dira baserriz baseri, eskean eta dantzan.

trikitariez lagundurik.

- **20:00** Urko Menaia Kantariarekin Euskal abestien emanaldia.
- **21:30** Herri afaria frontoian, arraunlariarekin batera. Animatu!!!



- **24:00** Jalisko Band-ekin dantzaldia.
- **03:00** DJ Kankar Eliza Zaharrea Mugitu hankak eta gerriak!!!

Urriak 7 igandea

- **09:00** Tiro platoa.
- **18:00** Herrikoen herri kirolak: Agiña VS Lasarte. Zatoz animatzera!!!
- **Ondoren**, sagardo eta sardin dastaketa bikaina. Bitartean, XXX. Toka Txapelketa herrikoa.

Urriak 12 ostirala

- **21:00** Bertso afaria Eliza zaharrea: II. Udarregi Sariketa (Finalerdia Bota Puntubaren laguntzarekin): Iban Urdangarin, Unai Gaztelumendi, Ander Lizarralde, Amaia Iturriotz, Nekane Zinkunegi, Miren Artetxe.
- **Ondoren**, Fan&Go-rekin dantzaldi ederra. Denok dantzaraaaaa!!!

Urriak 13 larunbata

- **16:00** XXXII. Mus Txapelketa Herrikoa (izen ematea 15.30ean).
- **18:00** Gorriti show.
- **20:00** Herri antzerkia herriko ludotekan. Barre egin nahi baduzue....
- **00:00** Abiba Dj. Jarraian, DJ Larra Eliza Zaharrea eguna argitu arte.



Gozatu aurtengo San Praixkuetaz, eta azaldu urriaren 14an igandea arratsaldeko 17.00etan, dena lehen bezala txukun uzten laguntzera!!

ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa, noaua.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

noaua
euskararen aterpe



BAZKIDETZA

IZENA: _____ ABIZENAK: _____

JAIOTZE DATA: _____ JAIOTERRIA: _____

N.A.N ZENBAKIA: _____

HELBIDEA: _____ HERRIA: _____ POSTA KODEA: _____

ETXEKO TELEFONOA: _____ MUGIKORRA: _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____ K/K ZENBAKIA: _____

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,

Tren bus ordutegi gehiago nahi?

NOAUA!N ETA BESTE HAINBAT TOKITAN DAUDE ESKURAGARRI

EuskoTren, Lurraldebus, TSST edota Usurbilgo bus-taxia zenbatero, noiz eta nondik igarotzen den jakiteko, argitalpen egokia da "2012-2013 tren-bus ordutegia", NOAUA!ren bitartez argitaratu eman berri duguna. Informazio hau guztia, urtero moduan, poltsikoan eramateko moduko tamainan bildu eta inprimatu da. Oraindik jaso ez edota ordutegi gehiago behar dituzue, NOAUA!-ko egoitzan eskura ditzakezue edota herriko beste gune zein saltokietan.

Pasa den astean, NOAUA! astekariarekin batera, 2012-2013 ikasturteari dagokion tren-bus ordutegia banatu genuen. Poltsikoan eramateko moduko argitalpen honetan, tren eta autobus ordutegiak bildu ditugu: EuskoTren, Lurralde Bus eta TSST zerbitzuen ordutegi guztiak.

Hauekin batera, Usurbilen martxan den Bus-Taxi zerbitzuaren ordutegia.

Ale gehiago eskura ditzakezu udaletxeko udal erregistroan, kiroldegian eta NOAUA!ko bulego-



Poltsikoan eramateko moduko tamainakoa da tren-bus ordutegia.

an. Baita honako saltokietan ere: Saizar sagardotegia, Aliprox saltokian, Aginagako Arrate egoitzan, eta Zubietako Alamandegi tabernan.

Dantza taldeko entsegu egunak zehaztu dira

Irailaren 28an egindako bileran erabakitakoaren arabera, honakoak izango dira 2012-13 ikasturtean Usurbilgo Dantza Taldean finkatutako ensaio ordutegiak:

■ LH 1 eta 2 adineko taldea:
ostiraletan, 16.30-17.30

■ LH 3-4 eta 5 adineko taldea:
astartetan 16.30-17.30

■ DBH adineko taldea:
ostiraletan 15.30-16.30

Klaseak urriko lehen astean hasiko dira. Aste honetan egingo dira lehen entseguak, hain zuzen Agerialdeko gimnasioan.

"Edozein zalantza edo argibidetarako jarri gurekin harremanetan e-posta helbide honetara idatziz: dantzataldea@usurbil.com", adierazi dute ohar bidez Dantza, Taldeko kideek.

Urriaren, ipuin kontalariak Potxoenean

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Udal Liburutegian izango da datorren astean, urriak 10 asteazkena. 18:00etatik aurrera. 6 urtetik aurrerakoentzat izango da eskainiko duen saioa.

Urriaren 23an asteartea, toki eta ordu berean, Pello Añorga ipuin kontalaria arituko da. Artista oiartzuar honen saioa, ordea, HH4ko ikasleei zuzendua egongo da.



Urriaren 10ean, Udal Liburutegian arituko da Ixabel Agirresarobe.

Aire kalitateari buruzko bilera, ostiralean Potxoenean

Usurbilgo aire kalitateari buruz hitz egiteko bilera antolatu du Usurbilgo Udalak, ostiral honetarako, urriaren 5erako. Arratsaldeko 18:30etan Potxoenean.

Ekaina amaieran Atxegalden burutu zen bilera, eta bereziki, bertako auzotarrak hurbildu ziren hitzordu hartara. Oraingoan, udalerrri mailako deialdia egin du Udalak, ostiralerako.

Elkarretaratzea Atxegalden, Itayak deituta

Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea deitu du Itayak. Ostiral honetan, 20:00etan Atxegalden, N-634 errepide bazterrean. Ucin lantegiak kutsatzen jarraitzen duela eta arazo konpontzeko neurriak hartzea eskatzeko, "Ucinek gure osasunarekin jolasten du" lemapean batzartu ziren hainbat lagun iraila partean. Gazte asanbladatik iragarri zuten, aurrerantzean kontzentrazioa hilabete bakoitzeko lehen ostiraleroko burutuko da leku berean, 20:00etan. Hurrena, ostiral honetan urriak 5.

Bake epailea eta ordezkoa, hautatuak

Agustin Esnaola Etxabe eta Sandra Vazquez Barrero hautatu dituzte hurrenez hurren, Usurbilgo Bake Epaile titular eta bere ordezkogisa. Esnaolak zortzi urte daromatza postu honetan, Vazquez ordezkogisa berria izango da. Hautaketok aho batez onartu zituen udalbatzak, irailaren 25ean burutu zen osoko ohiko bilkuran.

Prozedura ordea lehenagotik abiatu zuten, ekainaren 26an burutu zen osoko ohiko bilkuran hain zuzen. Orduko hartan, hautagaitzak aurkezteko hilabeteko epea finkatu zuen Udalak. Deialdia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak ere argitaratu zuen. Udalbatzak aho batez joan den astean onarturiko erabakiok, Euskal Herriko Justiziako Epaimahai Gorenari jakinaraziko zaizkio, "dagokion izendapena egin dezan".

Txalotzeko moduko Topa

Txerriki Taldekoak pozik dira IV. Topa Eszenikarekin, “herritarren partehartzea handia izan da”

Antzerki tailer eta emanaldi artean emanaldi artean agurtu dute, aurtengoan iraila osoan zehar ospatu den IV. Topa Eszenika. Txerriki antzerki taldekoek antolatutako ekimeneko azken hitzorduak joan den larunbatean ospatu ziren. Ondoko irudian, Malas Compañías Zirko taldekoen “Orsai” antzezlanaren emanaldiko une bat. Herritarrik ez zen falta frontoiko eserlekuetan. Ikusmina sortu zuten emanaldiko akrobaziek.

“Larunbat goizean eguraldia eurietsua zegoen, grisa. Mikel Laboa plazan taldetxoak elkartu ginen. Uxoaren azalpenekin, adi adi, muralaz gehiago gozatzeko jarraitzeko pistak jaso genituen”, azaldu digu Alex Tellok. Topa Eszenikak eman duenarekin pozik dira Alex eta



Orsai antzezlanaren frontoian eskaini zuten.

Txerrikiko kideak: “Galder Perez sortzailearekin frogatu ahal izan genuen Zumetaren murala inspiraziorako sekulako iturria dela. Zumetaren margoek eraginik bizi gara eta maiz, ohartzen ez bagara ere, egunero artez bustitzen gaitu. Baita egun grisetan ere”.

Herritarren partehartzea handia izan da, eta Telloren esanetan, “herritarren parte

hartzeak Topari indarra ematen dio. Topari eta guri, herriko antzerkizaleoi”.

“IKUSKIZUN BIKAINAK”

Arratsaldean frontoira bildu zirenek kale ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. Alex Telloren ustez, “koordinaketa bikaina eta une txundigarri ugari entretenimendu polit batean”. *Gure bide galduak an-*

tzezlanak ere harrera bikaina izan zuen: “bukaeran jaso zituen txaloak entzuteak poza ematen du. Herritar ugari bertaratu ziren, baita kanpoko jendea ere”, dio Alexek bere balorazioan.

Eta hau guztiaren aurretik, “Markeliñe. Kaleko ikuskizunak bikainak izan dira. Kalitate handikoak ditugu. Euskal Herrian halako gutxi dago eta hilabete honetan bitan etorri zaizkigu. Luxu bat”.

URRIAN, GEHIAGO

IV. Topa Eszenika Udalarekin elkarlanean burutu da eta lana eskatzen duen arren, merezi duela uste dute Txerrikiko kideek: “Irailan topa egiten gozatu dugu. Antzerkiarekin hurrengo hitzordua Sutegin urriaren 26ean izango dugu. Azkoitiko talde berria etorriko zaigu estreinaldi batekin”.

Kirola, kultura eta gastronomia bat eginik Zubietako Euskal Jaian

Euskal Jaia antolatu du Zubietan Lantzenek urriaren 12rako. Jaia giroten joateko, pilota jaialdia antolatu dute urriaren 11rako. Partidak gaueko 21:00etan hasiko dira eta sarrerak 5 eurotan eskuratu ahal izango dira, egunean bertan frontoian.

Ekitaldi bete egun izango da urriaren 12koa Zubietan (egitaraua Agendan, 18or). Datorren astean emanango ditugu xehetasun gehiago. Hala ere, antolatzaileek ohar batzuk helarazi nahi dituzte.

BAZKARIA ARAETAN

Araetan egingo den bazkariko txartelak Barazarren daudela salgai. Urriaren 8ra arte egongo dira salgai.



Euskal arrazako animalien erakusketa antolatu dute Euskal Jai egunerako.

Helduen menua hau izango da (20 euro): aperitiboa, otarrainska eta gulen salpikoia, ahate konfita, arroz-esne tarta, kafea.

Haurrena (10 euro), plater konbinatua izango da: kroketak, pasta, oilasko zatiak patatekin, izozkia.

ANJE DUHALDE

Urriaren 12an, gaueko 22:00etan hasiko da Anje Duhalderen kantaldia frontoian. Bere abesti ezagunenak eskainiko ditu. Kontzerturako txartelak egunean bertan salduko dira frontoi inguruan.

Mikel Goñi eta Fernando Goñi pilotariak Zubietan

Euskal Jaiaren bezperan, urriaren 11n osteguna gaueko 21:00etan, pilota partidak antolatu dituzte Zubietako frontoian: joko garbi, gomazko paleta eta eskuz binakakoak. Partidak ikusteko txartelak frontoian salduko dira, egunean bertan, 5 eurotan.

■ Joko-garbi:

Aizpurua II - Aizpurua III
Rezola - Aizpurua I

■ Gurpildun aulkian, paleta:

Aingeru - Iñaki
Beñat - Patxi

■ Eskuz binakakoa:

Xabi Santxo - Fernando Goñi
Mikel Goñi - Julen Urruzola

50. urteurrena prestatzen

USURBIL KIROL ELKARTEA MATERIALA BILDU NAHIAN DABIL

Mende erdia beteko du Usurbil Kirol Elkartek, datorren urtean, eta dagoeneko, 2013an ospatzekoak diren 50. urteurrenako ekitaldiak prestatzen hasiak dira. Besteak beste, kirol elkartearen zerikusia duen materiala bildu nahi dute.

NOAUA!ra igorri duten ohar honetan adierazten dutenez, prestaketa lanetan murgilduak dira honez gero Usurbil KE taldeko kideak. Eskubaloitza taldearekin loturiko materiala bildu nahi dute eta ohar hau zabaltzeko eskaera egin digute: "oso garrantzitsua iruditzen zaigu Kirol Elkarteari zerikusia duen materiala biltzea: argazkiak, kamisetak, partidetak aktak, prentsako albistek...".

Horretarako herritarren ekarpena ga-



2013an beteko du mende erdia.

rantzitsua izango dela diote: "beharko genuke material guztia biltzea, bakoitzak eduki dezakeen gutxi hori amankomunean jartzeko".

Ekarpenak egiteko, deitu 627 271 215 telefono zenbakira edo e-posta idatzi usurbilke@gmail.com helbidera.

GPS ikastaroan izena emateko epea ixtear da

Azken asteotan iragarri dugun bezalaxe, "GPSa eta ordenagailua" ikastaroa antolatuta Andatza Mendi Elkartek. Ikastaroan izena emateko epea irekia dago oraindik baina kontuan izan urriaren 10ean amaituko dela izena emateko epea.

Hiru egunez luzatuko da ikastaroa. Lehen bi saioak Udarregiko informatika gelan eskainiko dira: urriaren 16asteartea 18.30etatik 21.30etara. Urriaren 18an osteguna, 18.30etatik 21.30etara. Urriaren 20an larunbata amaituko da ikastaroa egun osoko jarduerarekin.

Informazio gehiago: www.andatza.com

Urriaren 21ean, Artikutzara Mendi irteera

Urriaren 21ean Artikutzara joango dira Andatza Mendi Elkartekoak. Irteera goizeko 7:30ean izango da. Oiarde kiroldegitik abiatuko dira, kotxez. Ibilaldia ordea, Ezkaxetik hasiko da. "Izuko ton-torra eta Artikutzako herria igaro ondoren Ezkaxera itzuliko gara", adierazi digute Andatza taldeko kideek.

Ibilaldiak 16 kilometro ditu eta 5 ordutan egi- tea aurreikusi dute.

Andatzak antolatzen dituen ekitaldietako eta irteeretako federatuen istripuak, mendi federazioaseguruak babesten ditu. Gainontzeko partaideen aseguruua norberaren ardura da.

Eskubaloitza partidak Oiarde kiroldegian

2012/10/06, larunbata:

Infantil mutilak (lagunartekoa). 11.00h

Udarregi Usurbil - Elgoibarko Sanlo EKT

Senior mutilak, 2. territoriala. 16.30h

Usurbil K.E. - Ordizia Vicuña Sport

Jubenil mutilak. 18.00h

Usurbil K.E. - Bergara K.E.

Senior mutilak, 2. nazionala. 19.30h

Atez Ate Usurbil - Atlético Basauri

2012/10/07, igandea:

Jubenil neskek. 10.00h

Usurbil K.E. - Aiala Zarautz.

Futbol partidak Haranen

2012/10/6, larunbata:

15:30 Regionalak.

17:30 Neskek.

2012/10/7, igandea:

11:00 Alebinak.

Emakumeentzako pala ikastaroa

Urriaren 12an amaituko da ikastaroan izena emateko epea eta Oiarde kiroldegian egin behar da. Urriari hasi eta maiatzera arte luzatuko da ikastaroa. Saiok astero burutuko dira, ordu eta erdiz. Interesdunek 50 euro ordaindu beharko dituzte. Kiroldegian egongo da ordutegiak kontsultatzeko aukera. Ez da beharrezkoa izango inoiz palan aritu izana. Baldintza bakarra, gutxienez 16 urte beteak izatea da.




EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sar-tzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

11 urteko pisu bat salgai Agina-gan, 3 logela, sukaldea, egon-gela, 2 komun, 2 balkoi, garajea (30 m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egi-na. 608 227 462

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpo-aldera. Egoera ezin hobean. Mer-kea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solai-ruko borda dena 3.000 m lur sai-lean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ede-rrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ema-ten du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komu-na, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikal-dean ipiniko ditugu berriaren. Oharra egokia ez dela eraba-kiko balitz, NOAUA!ko erredakzio batzordeak ohar hori argi-taratu gabe utziko luke.

komon, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Pisua salgai Atxegalden. Sukal-dea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro traste-roa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

Alokairuan atiko berria Usurbilen. 2 terraza handikoa. Altzai-ru berriz hornitua. 665 720 913.

Landetan (Vieux Boucau) apar-tamentu bat (4 pertsona) alokatzen da, Boucanier erresiden-tzian. Aste osoa, astebukaerak, nahiz egun askeak. 653 014518

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argi-tasun handikoa. 67 7471 648.

Pisua alokatzen da Txaramunto

kalean: 3 gela, sukaldea, bi komun, sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656757073.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxo-nan (Nafarroa). 4 logela, jange-la handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokagai Castellonen, opporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurre-tarako. Itsaso, gaztelu eta men-dialdeko bistak. 677 780 680.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usur-bilgo erdigunean. 667740266.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokai-ru konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza aloka-tzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terra-za eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

1999. urteko Ford Mondeo fami-liarra salgai, 2000 eurotan. Ego-era onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunto auzo-an. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegal-den. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Scooter bat salgai, 450 euro. Ego-era onean. 678 603 659.

Lokal bat alokatzen da, 90 metro. 250 euro. Gazteentzat egokia, Atxegalden. 628 063 871.

Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden. Bi solairu, bakoitza 45m, guztira 90 metro. Argia, ura, komuna. 658 716 970.

38 m garaje itxia salgai, Txara-munton. 665 677 195.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan eskaintzak

22 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da haurrak zaintze-ko goizetik eguerdirarte. Espe-

rientzia haurrak zaintzen, uda-jolaseko begirale eta haur hez-kuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase par-tikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guz-tietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein hau-rrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase parti-kularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-kaldun bat eskaintzen da hau-rrak zaindu edota klase partiku-larrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lane-tan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egi-teko. Tf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo inter-na moduan. 608 774 999.

17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan lagun-tzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua.

Zorion-agurrak

Zorionak Noa eta Ane!
Zorionak gure bi loretxo!
Urriaren 5ean beteko duzue urtebete. Muxu handi bat, aita, ama eta Julenen partez



Zoriona Martina!!
Urriaren 2an lau urte bete ditu. Muxu handi-handi bat Imanol, Gorka, Nikole eta Ximunen partez.



Zorionak Unax!!
Dagoeneko 5 urte bete dituzu!! Egun berezi hau ondo-ondo pasa dezazula.



Zoriona Pottoko!!
Gure Gorkak dagoeneko 4 urte bete ditu. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak bikote!!
Enekak 8 urte eta Jonak berriz sei. Ondo pasa zuen egunean. Muxu handi bat.

665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889/692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserri-kanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko.

662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsaldean edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturik naiz. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metallezko fundarekin (beltz koloreko). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoa utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko nuke (675 703 276).

Haurrentzako Maxi-Cosi Cabrio-fix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 1307:657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Poxpolin mertzeria traspasatzen da. 636 462 210.

Kaffa inguruan betaurreko batzuk agertu dira. Gizonezkoenak, zilar koloreko montura dutenak. Galdu dituenak, optikatik pasa bila.

Hainbat produktu erabili gabeko salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurri-

koak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Ingelesez hitz egin nahi, herri-rik mugitu gabe? Ingelesezko mintzapraktikarako taldea osatzen nabil. 670 382 999 (Unai).

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio onean. 637 974 994 Itziar

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztailea eta iraila. "Punta Lago" kanpinen. 634 443 909.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
KZgunea	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Popular Español	943 370 411
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	BBVA	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Telefonica	1004
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urriaren 4tik 14ra

Osteguna	4	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	5	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata	6	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea	7	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Astelehena	8	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea	9	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena	10	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna	11	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Ostirala	12	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata	13	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea	14	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe. Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

JE JON ELORZA
IGELTSEKORRA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

OSTEOPATIA ZERBITZUA
Kapitain D. G. FIELTENROQUE
TAL 204 173
HITZORDUA: 607 85 82 03
Zubiarenean 4, 943 361 951

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Agenda urria

5 ostirala

- Aire kalitateari loturiko bilera Potxoenean, 18:30ean. Deitzailea: Udala.
- Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea Atxegalden, 20:00.
- Umeen Eguna Aginagan (Ikus 11. or).

6 larunbata

- Oilasko Biltzaileen Eguna Aginagan, xehetasun gehiago 11. orrialdean.

7 igandea

- 80 urteko Gure Pakeako bazkideei omenaldia 12:00etan meza, 14:00etan bazkaria Atxega jatetxean.

Euskararen erabileraren berri emango da ezagutzera Potxoenean

Euskararen kale erabileraren neurketak egin ditu Soziolin-guistika Klusterrak. Neurketa hori bost gunetan egin da: Aginaga, Santuenea, Zubieta, erdigunea eta Olarriondo inguruan. Emaizten berri emango dute astelehenean Potxoenean.

“Gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealtatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den”, hala



19:00etan hasiko da hitzaldia.

diote udal iturriek. Bada azken neurketen emaitzak ezagutaraziko dituzte urriaren 8an astelehena, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean.

Taichi ikastaroa antolatu dute Santuenean

Taichi ikastaroa antolatu du Santuenea Kultur Elkartek. Asteazkenetan arratsaldeko 20:00etan.

Cristopher Tolla adituak gidatuko du ikastaroa, asteazkenero, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Santuenea 12ko egoitzan. Izena emateko telefono zenbaki honetara deitu behar da 652 390 384 edo email bat igorri helbide honetara: c.tollan@gmail.com

“Errekamari” txontxongilo saioa Santuenean

Urriaren 19an ostirala, “Errekamari” haurrentzako txontxongilo ikuskizuna eskainiko dute Santueneko frontoian, arratsaldeko 17:30ean. Txokolatea txurroekin banatuko da ondoren.

Santuenea Kultur Elkartek antolatu du “Errekamari” ikuskizuna. Euskal mitologiako pertsonaia ezagunetako Errekamari izeneko lami-

Datozenak

Urriaren 12an, Anje Duhalde kantaria Zubietako Euskal Jaian

Zubieta Lantzen duela urte batzuk hasi zen Euskal Jaia antolatzen. Hauxe izango da aurtengo egitaraua:

- 11:30 Trikitilariak.
- 12:00 Animalia erakusketa eta asto-karreira. Ondoren, hamaiketakoa.
- 14:00 Bazkaria Araeta jatetxean. Arratsaldean kantu-jira.
- 22:00 Anje Duhalderen kantaldia (sarrera: 5 euro).



“Euri lehorra” dokumentala Sutegin

Nazioarteko bitartekari batzuk hainbat bake prozesuetan egindako lana islatzen du dokumental honek. Euskal Herriaz duten iritzia azaltzen digute pertsona horiek. Gorka Espiauk zuzendu zuen dokumentala eta Sutegin izango da urriaren 17an, arratsaldeko 19:00etan.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LAUKOTE

okindegia
kafeteria

LAUKOTE

Puntapax 16. behea 943 360 980

JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

WHEEL KADENA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak • Hizkuntzak


629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

Irailean eta Urrian...

...irabazi EROSKETA-BALEAK Hurbilagorekin!

IRAILEAN eta URRIAN zure erosketa Hurbilago txartelarekin ordainduta **5, 10, 20 eta 50 €**ko erosketa-baleak irabaz ditzakezu.



Hurbilago txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio bezero sarituari bere erosketa-saria. Erosketa-sariaren trukea, Hurbilagoko edozein establezimendutan egin ahal izango da eta egindako erosketa berri baten zenbatekotik deskontatuko da.



Usurbilgo Udale



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, NEKAZARITZA ETA TURISMO SAILA. DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO





Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Jose txo Ikatzeta

687 951 225



MARGOAK - PAPERAK

FERNANDO
PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izaAgirre

Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL